

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

118/2019 Foru Dekretua, martxoaren 8koa, diputatu nagusiarena, zeinak onesten baitu 2019ko dirulaguntzen deialdi publikoa euskararen bidez sozializatzeko programak gauza daitezen udalek eta kuadrillek sustaturik

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatu du udalei eta kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea, 2019ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak gauza ditzaten.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntzen deialdi publikoa onartzea udal eta kuadrillentzat, 2019ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak gauza ditzaten; gehieneko dotazioa 150.000 eurokoa izango da, eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak arautzen du dirulaguntzetarako deialdia (ALHAO, 123. zk., 2015eko urriaren 21ekoa), zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokor arautzaileak.

Bigarrena. Dekretu honen bidez araututako dirulaguntzak, 150.000 euroko zenbatekoarekin, Arabako Foru Aldundiaren 2019rako aurrekontu antolamenduko 70.1.0778.00.462.90.01 partidaren kontura ordainduko dira.

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria

JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina

Dirulaguntzen deialdi publikoa, udalek eta kuadrillek euskararen bitartez sozializatzeko programak gauza ditzaten 2019. urtean

Lehena. Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea 2019ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak eta jarduerak antolatu, garatu eta gauzatzeko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan, zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokor arautzaileak.

Sozializaziotzat joko da pertsonen arteko interakzioa, beti ere hizkuntza komunikazio bitarteko izanik. Beraz, laguntza hauen helburu nagusia da gizarte programa eta jarduerari laguntzak ematea, honetarako: Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian euskal hiztunak eta horien sareak aktibatuzko, eta lurraldean euskaraz bizitzeko baldintzak eman daitezten aukerak sortzen jarraituzko, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan (2019-2022) jasotzen denari jarraituz.

Bigarrena. Aurrekontuei egoztea

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 150.000,00 euro. Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuko "Euskararen bitartez sozializatzeko programa. Toki erakundeak" izeneko 70.1.0778.00.462.90.01 partidaren konturakoa da zenbateko hori.

a) 95.000 euro. Gizarte erabilera. Diruz lagundutako esparrua: aisialdia eta kirola. Hiztun berriak. Diruz lagundutako esparrua: transmisioa.

b) 15.000 euro. Gizarte erabilera. Diruz lagundutako esparrua: administrazioa, arlo sozioekonomikoa, hedabideak eta ingurune digitala eta kultura.

c) 40.000 euro. Hiztun berriak. Diruz lagundutako esparrua: pertsona helduen euskalduntzea.

Hiztunak aktibatuzera bideratutako programak transmisio esparrutzat hartuko dira, eta mintzalagun, berbalagun edo antzeko programak aisialdiko jarduerak.

a) eta c) ataletako kontzeptuengatik esleitzeko dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu eranskin honen zazpigarren idatz zatian berariaz zehaztutako ehunekoak, eta inola ere ez 15.000 euro kuadrilla eta/edo udal bakoitzeko, 5.000 biztanle edo gehiago dituztenean, eta 10.000 euro udaleko, 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenean, 2018ko urtarrilaren 1ean.

Biztanleria dela-eta kontuan hartu beharreko datuak Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 29ko 33/2019 Erabakian daude jasota, zeinaren bidez onartu baitziren toki erakundeek finantzaketako foru funtsean hasiera batean edukiko dituzten behin-behineko partizipazioak eta zeinaren bidez ordaindu baitzitezaien kuadrillei eta udalei 2019ko lehen hiruhilekoa eta kontzejuei 2019ko lehen seiuhilekoa. (otsailaren 1eko ALHAO, 14. zk.)

b) ataleko kontzeptua dela-eta dirulaguntza bakoitzeko esleitu beharreko zenbatekoa ez da izango eranskin honetako zazpigarren atalean horretarako ezarritako ehunekoak baino gehiago, eta, edonola ere, ez da izango 6.000 euro baino gehiago kuadrillako edo udaleko.

a), b) eta c) ataletako proiektuei emateko dirulaguntzak kalkulatu eta gero bietakoren batean soberakina badago, balioespen batzordeak proposatu ahal izango du soberakin hori beste ataletan ematea.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Konderriko udalak eta kuadrillak, Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

Kanpoan geratuko dira Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan aipatzen diren egoeretan dauden erakundeak (55/2015 Foru Dekretua, urriaren 6koa, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onartu zituen).

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Programek, haien jarduera eta prozeduren bitartez diruz laguntzeko modukoak izango badira, pertsonen arteko gizarte interakzioa izan behar dute xede, euskara komunikazio bitarteko izanik.

Euskalduntzearen eta alfabetatzearen esparruan: diruz laguntzeko modukoak izango dira euskara ikasteko eta/edo euskararen gaineko sentsibilizazioaren gaineko ikastaroak (on-line ikastaroak, Aisa, Esadazu euskaraz, ostalaritzako enplegatuentzako ikastaroak, denbora libreko begiraleak, jantokietako begiraleak eta eskolaz kanpoko jardueretako begiraleak, eta abar), euskaltegi homologatu batek emanak, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra, diruz laguntzeko moduko gastutzat joko direlarik irakasleak kontratatuzko gastuak 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra.

Gainerako arloetan, diruz lagundu ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako programaren zuzeneko gastuak.

Halaber, diruz lagungarriak izango dira hiztunak aktibatuzera bideratutako programak Euskaraldiaren esparruan.

Aisialdiko programetan, diruz lagunduko badira, entitate onuradunak konpromisoa hartu beharko du programaren ardura duten langile guztiek (begiraleak, alegia) euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat behinik behin egirik izan dezan jardueraren hasiera baino lehen.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dago-kienez, gastu hauek:

a) Euskaraz egin arren, euskararen bitartez sozializatzeko prozedurak jasotzen ez dituzten programak.

b) Euskalduntze-alfabetatzearen esparruan, dirulaguntzetatik kanpo geratzen dira irakasleen garraio gastuak, bai eta udalek eta kuadrillek, barne funtzionamenduan, beren langileentzat eta lan orduetan sustatzen dituztenak ere.

c) Erakundea mantendu eta martxan jartzeko gastu orokorrak.

d) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

e) Publizitate, ordezkariak, kudeaketa, protokolo, itzulpen, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.

f) Inbertsio gastu direnak.

Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino (obra kontratuak: 40.000 euro baino gutxiago, BEZa aparte; hornidura edo zerbitzu kontratua: 15.000 euro, BEZa aparte), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaile, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskabidean; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira, beren-be-regi, memoria batean.

Dirulaguntza jasotzen duen entitateak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du jaulkitako agiri guztietan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexueta, roletan eta genero identitateetan.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduko zaizkio, I. eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

A) Administrazio agiriak. Eskaerarekin batera hauek egiaztatzen dituen agiri bat aurkeztu behar da:

– Entitatearen organo eskudunak eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakia.

– Zinpeko adierazpena, non jasoko baita aisialdiko programak (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo horien antzekoak) gauzatuko dituzten langileek, gutxienez, Batxilergoa euskaraz ikasi dutela, edo egiaztatu dutela B2 maila, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edo baliokidea.

– Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

– Aisialdi programetarako (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak): zinpeko aitortpena, non agintzen den horien arduraren izango duten langile guztiek eginga izango dutela, gutxienez, euskara bidez sozialitzeko ikastaro bana, salbu eta programa dirulaguntza hau eskatu aurretik hasi denetan; horrelakoetan, programan jardungo duten langileek, deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera, hilabete izango dute euskara bidez sozializatzeko ikastaroa egiteko.

B) Berriazko agiriak, II. eranskinaren arabera.

Programa bakoitzaren deskribapena:

– Programaren eta haren ekintzen helburua eta azalpena.

– Norentzat (helduentzat, gurasoentzat, gazteentzat, familientzat, umeentzat, denentzat...)

- Aurreikusten den parte hartzaile kopurua.
- Berdintasunarekin eta kultura aniztasunarekin zerikusi zuzena duten ekintzak, halakorik badago.
- Euskararen bidezko sozializatzeko maila.
- Eremuak: 1- Gizarte erabilera (aisia eta kirola). Hitzun berriak (transmisioa). 2- Gizarte erabilera (administrazioa, gizartea eta ekonomia, komunikabideak eta ingurune digitala, kultura). 3- Hitzun berriak (helduen euskalduntzea).
- Programaren gastu eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. Diru sarreraren atalean zehaztu behar dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, entitatearen ekarpena, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, halakorik badago.

Seigarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

1. Prozedura izapidetzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du.

2. Balioespen irizpideak.

Mintzalagun programek eta euskalduntze taldeek gehienezko puntuazioa jasoko dute (100 puntu).

Hartzaileak euskararen bitartez sozializatzea da helburua. Ez dira balioetsiko eskatzailearen eskaeran argi eta zehatz azalduta agertzen ez diren arloak.

Irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Programaren koherentzia era garapena.

Gehienez, 5 puntu.

— Programa kalitate teknikoarekin eta koherentziarekin idatzita eta aurkeztuta egotea	5
— Programa koherentziarekin idatzita eta aurkeztuta egotea	0

b) Zeharkakotasuna.

Gehienez, 10 puntu.

— Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak garatzea	5
— Kultur aniztasuna sustatzen duten ekintzak garatzea	5

c) Lurralde oreka.

Gehienez, 5 puntu.

— 2018ko urtarrilaren 1ean, 1000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriak	5
— 2018ko urtarrilaren 1ean, 1000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak	0

d) Sozializazioa, jasotzaileak, euskararen erabilera eta programaren intentsitatea.

1. Gehienez, 80 puntu.

Haur, gazte, guraso edo familia unitate osoari zuzendutako programak:

SOZIALIZAZIOA	ERABILERA PROAKTIBOA	ERABILERA AKTIBOA	ERABILERA EZ AKTIBOA	INTENTSITATE HANDIKO PROGRAMA (JARRAIA, SARRI EGITEN DENA, EZ NOIZBEHINKA)	INTENTSITATE GUTXIKO PROGRAMA (JARRAIPENIK GABE, NOIZBEHINKA EGITEN DENA)
TALDEKOA	55	25	20	25	15
BANAKAKOA	—	25	15	20	10

2. Gehienez, 40 puntu.

Helduentzat edo denentzat diren programek irizpide hauek izango dituzte:

GIZARTERATZEA	ERABILERA PROAKTIBOA	ERABILERA AKTIBOA	ERABILERA EZ AKTIBOA	INTENTSITATE HANDIKO PROGRAMA (JARRAIA, SARRI EGITEN DENA, EZ NOIZBEHINKA)	INTENTSITATE GUTXIKO PROGRAMA (JARRAIPENIK GABE, NOIZBEHINKA EGITEN DENA)
TALDEKOA	20	—	15	20	5
BANAKAKOA	10	—	5	10	5

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak gutzirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera gehieneko dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta.

Puntu kopurua	Dirulaguntzaren ehunekoa, gehienez
0 - 30 puntu	0
31 - 50 puntu	30
51 - 65 puntu	40
66 - 80 puntu	50
81 - 100 puntu	60

Ateratzen diren zenbatekoen baturak deialdiaren diru dotazioa gainditzen badu, jaso beharreko zenbatekoak hainbanatu egingo dira, arestian deskribatutako eskalan ezarritako ehunekoen proportzioan, deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

Zortzigarrena. Dirulaguntzari uko egitea eta ukapen hori jakinaraztea

Diruz lagundutako programaren bat egiteari uko egitea erabaki duten laguntzen erakunde onuradunek, hartarako dituzten arrazoiak gorabehera, lehenbailehen jakinaraziko dute hari uko egiten diotela, alegia, dakiten bezain laster.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira aurreko ahalpaldian adierazitako ukapenak (Probintzia plaza, z.g.); edo, bestela, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua xedatutako eraren batean.

Bederatzigarrena. Ebazpena

1. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek mahaikide: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kiroletako Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkari, eta horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Euskararen Foru Zerbitzuak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein erakunde onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Diru laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

Hamargarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendaturik, justifikatu ondoren; gastu guztiak justifikatzeko epea 2019koko abenduaren 27an amaitzen da.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza. 1.000 eurotik gorako gastuen ordainketa baino ez da egiaztu beharko.

2020ko otsailaren 28rako aurkeztu beharko dira, beranduenez, diru laguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

Aurreko paragrafoetan aipatu diren aurkeztu beharreko agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dute, edo bestela fotokopia konpultsatuak. Ezin izango da aurkeztu beste batzuekin batera finantzatutako programa edo jardueren gastuen fotokopia konpultsatua. Horrelakoetan, ezinbestekoa izango da jatorrizko gastu agiriak zigilatuta aurkeztea. Jatorrizko fakturekin egiaztatu beharreko gastuei zigilua ezarriko die Euskararen Foru Zerbitzuak, adieraziz zein den dirulaguntzak eragiten dion zenbateko zehatza, eta, ondoren, jatorrizko agirien kopia konpultsatuko dira.

2. Gastuak frogatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, zeina arautzen baitute Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 28.1 eta 2 artikuluetan eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehia bidezko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak 10. artikuluan, eta, horretarako, eskatutako programa bakoitzeko, nahitaez bete beharko dute IV. eranskina.

IV. eranskinaz gain, hauek osatuko dute justifikazio kontu erraztua:

– Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena (III. eranskina).

– Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira jatorrizko fakturak edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000 euro gainditzen badute (BEZa aparte), eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak.

Organo bideratzaileak egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, froga-agiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Gainera, halakorik bada, ale bat aurkeztuko da azterlan, programa, argitalpen, iragarki kartel eta prestatutako dokumentazio idatzi edo grafiko guztiarena; horrek guztiak bat etorri behar du eskaeran aurkeztutako programarekin.

Organo izapidetzaileak eskatu ahal izango dizkie onuradunei egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak, dirulaguntza bere xederako erabili dela behar bezala egiaztatu ahal izateko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

– Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.

– Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.

– Gastuaren xedea.

– Data.

– Faktura zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZeko (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako ordainketei buruzko zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren froga agiri hauek onartuko dira:

– Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

– P kontabilitate agiriak, dagokion erakunde publikoaren zigilua dutela (udala, kuadrilla...)

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Jatorrizko erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza zentro eta autobideetakoak, bidaiak txartelak eta abar).

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezarriko den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaloa atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Euskara ikasteko programetan (euskalduntzea), bai eta Mintzalalagun, Berbalagun edo antzekoetan, 2. puntuaren zerrendatzen diren agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Programako parte hartzaileen zerrenda nominala, pertsona eta talde kopurua, programaren iraupena eta taldearen ebaluazioa.

4. Aisialdi programetan (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak eta antzekoak), bigarren puntuaren zerrendatzen diren agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Programa gauzatuko duen enpresaren memoria, non zehazten den zer mailatan lortu duen programak euskararen bitartez sozializatzea eta zein neurri hartu diren horretarako.

– Egiaztatzea, ziurtatuz aisialdi programaren arduraren ardura duen monitoreak, gutxienez, euskaraz ikasi duela Batxilergoa, edo egiaztatu duela B2 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuaren arabera, edo baliokidea.

– Frogagiriak, frogatuz ezen programaren arduraren ardura duen langile guztiek (begiraleek) egina dutela gutxienez euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bana, programa hasi aurretik.

– Aisialdiko programa gauzatzeko toki erakundeak kontratatutako enpresaren ziurtagiria, jatorrizkoa, zigilatua eta izenpetua, zerbitzua emateko kontratatu diren monitoreen izen-abizenak zehaztuta.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioarteko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jardueraren edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.

Onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioarteko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta laguntzarik eman dioten.

Hamabigarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Era berean, eranskinak digitalki eskura daitezke www.araba.eus web orrian edo beste honetan: www.euskaraba.eus.

Euskararen Foru Zerbitzuak www.euskaraba.eus. web orrian argitaratu ahal izango du diruz lagundutako programa edo jarduera.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntza eskaera. (I. eranskina)

2019

Solicitud de subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo I)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IKZ
CIF

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herraldea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herraldea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

www.araba.eus

Probintzia plaza 5. 3., 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 123012. e-mail: aladfa@araba.eus

1 / 3



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntza eskaera. (I. eranskina)

2019

Solicitud de subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo I)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

Aurkeztutako aurrekontua ■ Presupuesto presentado

Sarrerak ■ Ingresos

Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado

Programaren izena Denominación del programa	Aurrekontua BEZa barne Presupuesto IVA incluido	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Norberaren ekarpena Aportación propia	Bestelako sarrerak Otros ingresos

BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

Bankua ■ Banco

Sukurtsala ■ Sucursal

Kodea ■ Código

K/ Korrontea ■ C/ Corriente

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

Honakoak egiaztatzen dituen agiria ■ Documento que certifique

- **Erakundearen organo eskudunak, eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakia.**
El Acuerdo del Organismo competente de la Entidad, autorizando la solicitud y financiación parcial del gasto.
- **Zinpeko aitortpena, non jasoko baita udaleku, jolas txoko edo horien antzeko programak egingo dituzten langileek euskaraz ikasi dutela batxilergoa, edo B2 maila egiaztatu dutela, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuarekin bat etorritik, edo baliokidea.**
Declaración jurada comprometiéndose a que el personal que vaya a realizar los programas de ocio (colonias, rincones de juegos o similares), como mínimo deberá haber cursado el bachillerato en euskera o acredite, un nivel B2, conforme al Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas o equivalente.
- **Zinpeko aitortpena, non jasoko baita udaleku, jolas txoko, gazteleku edo horien antzeko programak egingo dituzten langile guztiek euskaraz sozializatzeko ikastaroa egiaztatu dutela.**
Declaración jurada comprometiéndose a que el personal que vaya a realizar los programas de ocio (colonias, rincones de juegos, gaztelekus o similares), deberá haber realizado un curso específico de socialización a través del euskera.
- **Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak (giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak).**
Recursos disponibles para gestionar las iniciativas presentadas (humanos, materiales e infraestructuras).

Programa bakoitzaren deskribapena (II. eranskina) ■ Descripción de cada programa (Anexo II)

www.araba.eus

Probintzia plaza 5. 3., 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 123012. e-mail: afadfa@araba.eus

2 / 3



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntza eskaera. (I. eranskina)

2019

Solicitud de subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo I)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkarieren sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Oharra (1)

Datu Pertsonalak Babesteko dauden arauak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egileko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezereztzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, [posta elektronikoko bakarraren helbidea \(EBH\)](#) lortu. Ondoren, zerbitzu horiek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA - Ez ordazkatzen dudan erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarteak ez duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLOren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

BIGARRENA - Ez ni, ez ordazkatzen dudan erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarteak ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenel buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administrazio edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuen erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako baztertzeko erabakiak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere, baldin eta enpresabururak, jakinarenean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badiu. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenel buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una [dirección de correo electrónico única \(DEU\)](#) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los [procedimientos](#) que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

Nota (3)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO - Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

www.araba.eus

Probintzia plaza 5. 3., 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 123012. e-mail: afadfa@araba.eus

3 / 3



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntza eskaera. (II. eranskina)

2019

Solicitud a subvención de Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo II)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

II. ERANSKINA ■ ANEXO II¹

Erakunde onuraduna ■ Entidad beneficiaria

Programaren izenburua ■ Título del programa

Programaren xede nagusiak ■ Objetivos principales del programa

Xede taldea ■ Público destinatario

Orokorra ■ Público en general

Helduak ■ Adultos/as

Familia, gurasoak ■ Familiar, madres y padres

Gaztetxo-gazteak ■ Adolescente-juvenil

Haurrak ■ Infantil

Garatuko den ardatz eta arloa ■ Eje y ámbito en que se desarrollará


Gizarte erabilera ■ Uso social	<input type="checkbox"/> Aisia eta kirola ■ Ocio y deporte
	<input type="checkbox"/> Arlo sozioekonomikoa ■ Espacio socioeconómico
	<input type="checkbox"/> Komunikabideak eta Ingurune Digitala ■ Medios de comunicación y Entorno Digital
	<input type="checkbox"/> Administrazioa ■ Administración
Hiztun berriak ■ Nuevas y nuevos hablantes	<input type="checkbox"/> Euskalduntzea ■ Euskaldunización
	<input type="checkbox"/> Transmisioa ■ Transmisión

Programaren deskribapena ■ Descripción del programa

Aurreikusitako parte hartzaile kopurua (generoka) ■ Número de participantes previstos (por género)

¹ Aurkezten den programa **bakoitzeko** bete eranskin **bat**. Hemen ere eskuragarri:
Deberá ser cumplimentado por cada programa que se presente. Disponible en:

www.araba.eus eta www.euskaraba.eus

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntza eskaera. (II. eranskina)</p>
	<p>2019</p> <p>Solicitud a subvención de Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo II)</p>

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

Euskaraz sozializatzeko metodologia eta neurriak ■ Metodología y medidas para la socialización a través del euskera

Zeharkakotasuna sustatzeko aurreikusitako egintzak ■ Medidas previstas para el fomento de la transversalidad

Euskararen erabileran aurreikusitako eragina ■ Incidencia prevista en el uso del euskera

Ebaluaziorako neurriak ■ Medidas para la evaluación

Aurrekontua: aurreikusitako gastuak eta sarrerak ■ Presupuesto: gastos e ingresos previstos

Aurreikusitako gastuak ■ Gastos previstos		Aurreikusitako sarrerak ■ Ingresos previstos (Norberaren ekarpena, besterena, kuotak...) (Aportación propia, de otras entidades, cuotas...)	
GUZTIRA ■ TOTAL		GUZTIRA ■ TOTAL	



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntzaren zuriketa memoria. (III. eranskina)

2019

Memoria justificativa de la subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo III)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

III. ERANSKINA / ANEXO III¹

ZURIKETA MEMORIA ■ MEMORIA DE JUSTIFICACIÓN

Erakunde arduradunaren izena ■ Entidad responsable

Programaren izena ■ Nombre del programa

Deskribatu garaturiko jarduerak ■ Describe las actividades desarrolladas

Helburuen lorpena ■ Consecución de objetivos

Parte hartzailea ■ Participante

Aurreikusitako parte hartzaile kopurua. ■ N° de personas destinatarias previstas	
Parte hartzaile kopurua ■ N° personas destinatarias	
Emakumezko kopurua ■ N° Mujeres	
Gizonezko kopurua ■ N° Hombres	
Programaren iraupena ■ Duración del programa	

Programaren komunikazioa ■ Comunicación del programa

Posta zerrendak edota e-buletinak ■ Mailing y/o boletín electrónico	<input type="checkbox"/>
Euskarri fisikoak (esku-orriak, kartelak...) ■ Soporte físico (folletos, carteles...)	<input type="checkbox"/>
Webgunea, bloga j(disqus, social, icalendar) ■ Página web, blog, j(disqus, social, icalendar)	<input type="checkbox"/>
Whatsapp taldeak, telegrama zerrendak ■ Grupos whatsapp, telegram	<input type="checkbox"/>
Sare sozialak (facebook, twitter...), hootsuite ■ Red social (Facebook, twitter...), hootsuite	<input type="checkbox"/>
Panel elektronikoak ■ Panel electrónico	<input type="checkbox"/>
Automatizazio tresnak: ifttt ■ Instrumentos automatización: ifttt	<input type="checkbox"/>
Irratia ■ Radio	<input type="checkbox"/>
Telebista ■ TV	<input type="checkbox"/>
Egunkariak ■ Periódicos	<input type="checkbox"/>
Tokiko aldizkariak ■ Revistas locales	<input type="checkbox"/>


¹ Aurkezten den programa bakoitzeko bete eranskin bat. Hemen ere eskuragarri:
Deberá ser cumplimentado por cada programa que se presente. Disponible en:

www.araba.eus eta www.euskaraba.eus

www.araba.eus

Probintzia plaza 5. 3., 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 123012. e-mail: aladfa@araba.eus

1 / 2

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntzaren zuriketa memoria. (III. eranskina)</p> <p>2019</p> <p>Memoria justificativa de la subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para la socialización a través del euskera. (Anexo III)</p>
	<p>Euskara, Kultura eta Kirol Saila Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p>

Inguruko norbait ■ Alguna persona conocida	<input type="checkbox"/>
Beste modu batez, zein? ■ Algún otro modo, ¿cuál?	<input type="checkbox"/>

Programaren ekarpena ■ Aportación del programa

Zein izan da, zure iritziz, programak egiten duen ekarpena? ■ ¿En tu opinión, cuál ha sido la aportación del programa?

--

Euskararen sozializazioa ■ Socialización del uso del euskera

Euskara gehiago erabili izan da ■ Se ha usado más el euskera

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Parte-hartzaileen elkarreagin edo sozializazioa euskaraz izan da ■ La interacción o socialización entre las personas participantes se ha realizado en euskera

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Nola bideratu da euskarazko sozializazioa parte hartzaileen artean? (Hizkuntza jolasak, hizkuntza dinamikak, hizkuntza errutinak, hizkuntza aktibazioa...) ■ ¿Cómo se ha llevado a cabo la socialización del euskera entre las personas participantes? (Juegos lingüísticos, dinámicas lingüísticas, rutinas lingüísticas, activación lingüística...)

Zer neurri jarri duzue parte hartzaileek euren artean euskara erabiltzeko? ■ Medidas para aumentar el uso del euskera entre las personas participantes.

Zer oztopo edo gabezia sumatu duzue helburua lortzeko? ■ Dificultades o carencias para conseguir el objetivo.

Zer gertatu da arrakastatsu? ■ ¿Qué ha sido exitoso?

Asebetetze maila ■ Grado de satisfacción

Programak alde zuzeneko helburuak bete ditu ■ El programa ha satisfecho los objetivos iniciales

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Aukera izanez gero, berriro antolatuko genuke ■ Si hubiera ocasión, se volvería a organizar el programa

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Egindako gastua egokia da ■ El gasto realizado ha sido adecuado

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Norbaiti gomendatuko diozu? ■ ¿Se lo aconsejarías a alguien?

BAI	EZ
-----	----

Zergatik? ■ ¿Por qué?


--

Tokia ■ Lugar	Urtea ■ Año	Hila ■ Mes	Eguna ■ Día

(Ordezkararen sinadura) ■ (Firma de la persona representante)

Euskaraz sozializatzeko udal eta kuadrillen dirulaguntzaren justifikazio kontu erraztua
(IV. eranskina)
2019

Cuenta justificativa simplificada de la subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para socialización a través del euskera. (Anexo IV)



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

IV. ERANSKINA¹.- JUSTIFIKAZIO KONTU ERRAZTUA ■ ANEXO IV.- CUENTA JUSTIFICATIVA SIMPLIFICADA

Erakundearen izena ■ Nombre de la entidad

Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian udalek eta kuadrillek 2019an euskararen erabilera sozializatzeko programak egiteko dirulaguntzetarako deialdi publikoaren barruan emandako dirulaguntzari dagokionez,

En relación con la subvención concedida dentro de la convocatoria pública de subvenciones para el desarrollo de programas de socialización del uso del euskera, promovidos por Ayuntamientos y Cuadrillas, ejercicio 2019, en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño.

D./D^a |

| jaunak / andreak

adierazitako erakundearen ordezkaritza,

en representación de la entidad indicada,

ZIURTATZEN DU / CERTIFICA:

Jasotako dirulaguntzaren xedea bete dela, aipatutako datuak egiazkoak direla, jarduera egiteko erabili dela dirulaguntza, eta ezarritako epean egin dela jardura. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharrak aitortu da erakundearen kontabilitatean. Gastuak beheko taulan zehazten dira.

Que se ha cumplido la finalidad de la subvención percibida, que los datos anteriormente relacionados son ciertos, que los mismos se han destinado al cumplimiento de la actividad realizada y que la misma se ha realizado dentro del plazo de ejecución concedido, acreditando además que el gasto realizado, que se relaciona a continuación, ha sido objeto de reconocimiento de la obligación en la contabilidad de la Entidad.

¹ Aurkezten den programa bakoitzeko bete eranskina bat. Hemen ere eskuragarri: Deberá ser cumplimentado por cada programa que se presente. Disponible en:

www.araba.eus eta www.euskarabak.eus

Faktura zk. eta jaulkipen data Nº factura y fecha de emisión	Programa Programa	Hornitzailea Proveedor	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa (1) Importe (1)	BEZ (2) IVA (2)	PFEZ (3) IRPF (3)	Garbia (1+2-3) Neto (1+2-3)	Guztira (1+2) Total (1+2)	Ordainketa eguna (hala badagokio) Fecha de pago (en su caso)

- Jatorrizko fakturak edo agiri baliokideak erantsi direla, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako 1.000 euro gaitzitzen dutenak (BEZa aparte), eta horiek ordaindu izanaren frogagiriak.
- Que se adjuntan facturas o documentos equivalentes originales que, individualmente o de forma conjunta para un mismo concepto de gasto, superen la cantidad de 1.000 euros (IVA no incluido) y sus correspondientes justificantes de pagos.
- Honako dirulaguntza, laguntza edota diru sarrera hauek lortu direla xede bererako:
- Que para la misma finalidad se han obtenido las siguientes subvenciones, ayudas y/o ingresos.

Erakundea ■ Entidad	Zenbatekoa ■ Importe

Ez dela beste inongo dirulaguntza, laguntza edo diru sarrerarik jaso.

No se ha obtenido ninguna otra subvención, ayuda o ingreso.

Beraz, honakoa izan da sarrera eta gastuen arteko balantzea:

Por tanto, el balance de ingresos y gastos ha sido el siguiente:

Gastuak ■ Gastos	Sarrerak ■ Ingresos (Norberaren ekarpena, besterena, kuotak...) (Aportación propia, de otras entidades, cuotas...)
Guztira ■ Total	Guztira ■ Total

.....

(Sinadura, tokia eta data ■ Firma, lugar y fecha)